



San Joan Ebanjelariaren arkitektura

BERRIZ

Ezaugarriak

San Joan Ebanjelariaren eliza XVI. mendearen bigarren erdialdeko euskal testuinguru arkitektonikoaren adibide garbia da. Bere estilo gotiko-errenazentistak garaian eraikuntza erlijiosoek jasan zuten aldaketa estilistikoaren erakusgarri txiki bat da.

Parrokiak gordetzen duen erretaula churriguereskoa ere Bizkaiko adibideen artean aipagarrienetakoa da.

Nola heldu ziren garaian puntakoak ziren tendentzia artistiko europarrak Berrizera? Zer gertatu zen Durangaldean korrante errenazentisten ispilu argia bihurtuko zen arkitektura adibide hau posible izateko?

San Joan Ebanjelariaren eliza barruan egingo dugu bisitaren zati handiena.

Bisitan nabarmentzekoak:

📍 Irteera puntua: Elizondo plaza

🕒 Iraupena: 90 minutu

🚶 Zailtasun maila: Erreza

👤 Taldea: Gehienez 25 pertsona

🗣️ Hizkuntza: Euskara, gaztelera

💶 Prezioa: 185 € (BEZ barne)



Oharra

Bisita hau zure beharrianetara egokitzen ez bada, egiguzu kontsulta eta aztertuko dugu egokitzeko aukera. Eskaintzen ditugun bisita gidatuez gain, norbere beharrianen neurrira bisitak prestatzeko aukera eskaintzen dugu. Idatzi edo deitu lasai: info@gerediaga.eus / 946818066